

3. ORDENANTZA

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 4.3 artikulua aitortutako eskumenak erabiliz, Udalak artikulua horretako 1 atalean adierazitako gutxieneko kuotak igo eta ERANSKINean jasotzen diren moduan onartu ditu. Aipatutako artikulua abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauaren 8. artikuluaaren bigagarren idatz zatiak aldatu zuen.

II. ZERGA-KUOTA

2. artikulua.

Eranskinean jaso dira aurreko artikulua aipatzen duen koefizientea aplikatu ondoren eskatuko diren tarifak.

III. HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

3. artikulua.

3.1.- HOBARIAK: Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan errolatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

3.1.1. Zerga kuotaren %50eko hobaria izango dute fabrikatu ziren datatik zenbatuta hogeita bost urte baino gehiago eta berrogeita hamar baino gutxiago dituzten ibilgailuek, eta zerga kuotaren %100eko hobaria fabrikatu ziren datatik gutxienez berrogeita hamar dituztenak. Fabrikazio data ezaguna ez balitz, lehenengo aldiz matrikulatu zeneko data hartuko da kontuan, eta matrikulazio datarik ezean, ibilgailu-mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaioneko data.

3.1.2.1.- Zerga kuotan % 75eko hobaria izango dute motor hibridoa duten ibilgailuek (elektrikoa eta gasolina, elektrikoa eta diesela edo elektrikoa eta gasa). Fabrikazio bertan homologatuta egon beharko dira. Zerga hobaria 5 urtera mugatuko da lehenengo matrikulazio egunetik kontatzen hasita.



Zerga kuotan % 95eko hobaria izango dute motor elektrikodun ibilgailuek fabrian bertan homologatuta baldin badaude.

3.1.3 Indargabetuta 2016ko urtarrilaren 1etik.

3.1.4.- Familia ugaria diren subjektu pasiboetarako, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zergaren kuota osoan. Hobaria bizikidetzaren unitatearen bost plaza edo gehiagoko ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio.

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	x □ LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren”.

3.2. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, atzerriko agente diplomatikoenak eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Horiez gain, salbuetsita egongo dira Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzarako nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.



Era berean, salbuesita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira Salbuespen hori zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboek.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

- a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.
- b') Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

f) Udalaren emakida administratibo bidez hiri garraio publikoari atxikita dauden autobus, mikrobus eta gainerako ibilgailuak, plaza kopurua (gidariarena barne) bederatzitik gorakoa denean.

g) Nekazaritza Makineriaren Inskripzio Kartila duten traktore, erremolke, erdierremolke eta makineria.

Apartatu honetako e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskaera egin beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak behin salbuespena onartuta, agiria emango du hura eman dela egiaztatzeko.

Halaber, e) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesatuak desgaitasunaren frogagiria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena aurkeztu beharko dizkio Udalari, eta ibilgailua zertarako erabiltzen duen ere justifikatu beharko dio Udalak ezarriko duen eran. Aipatutako frogagiriak organo eskudunak emanak izango dira beti.

3.3. Aurreko atalean aipatutako ondorioetarako, ibilgailuen titularrek Udal honetan erroldatuta egon beharko dute, eta zerga ordaintzetik salbuesteko eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dituzte Udal honetako Erregistro Orokorrean:

a) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak edo minusbaliatu baten izenean eta berak bakarrik erabiltzeko matrikulatutako ibilgailuak:

- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia
- NANaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren ziurtagiriaren fotokopia.
- Ibilgailuaren titularrak bakarrik erabiltzeko dela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- Gizartekintzak edo ordezkatzeko duen Administrazio-aginteak emandako ziurtagiriaren originala

b) Traktoreak, erremolkeak, erdierremolkeak eta nekazaritzako makineria

- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.



- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Nekazaritza Makineriaren Inskripzio Kartilaren fotokopia, edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Makineriako Erregistro Ofizialean alta emanda egotearen ziurtagiria. Horrek ibilgailuaren titularraren izenean egon behar du ezinbestean.

IV. ZERGAREN GESTIOA.

4. artikulua.

1. Zerga hau autolikidazio erregimenean eskatuko da, Udal Administrazioak xede horretarako zerga honen subjektu pasiboei eta dagozkion espedienteak tramitatzen dituzten gestoriei emango dien eredia baliatuta.

2. Zerga hau autolikidazioa aurkeztean ordainduko da.

3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru bilketa Araudiaren 76.2 artikulua araberan, zerga honen kobratze-epea urtarrilaren 2tik martxoaren 31ra izango da.

5. artikulua.

Zerga honen ordainketa-egiaztagiria, zorra kitatzean Udal Administrazioak egindako behin betiko ordainagiria izango da.

6. artikulua.

1. Ezinbesteko baldintza da zerga ordainketa egunean edukitzearen egiaztagiria aurkeztea, Trafiko Buruzagitzan ondoren adierazten diren espedienteak tramitatzen has daitezen:

- a) Ibilgailuaren zirkulatzeko gaitasunaren agiria.
- b) Ibilgailuaren behin betiko baja.
- c) Ibilgailua berritzea, baldin eta berritze horrek ibilgailuaren klasifikazioa aldatzen badu zerga honi dagozkionetarako.
- d) Ibilgailuaren transferentzia.
- e) Ibilgailuaren zirkulazio- baimenenean agertzen den subjektu pasiboaren helbide-aldaketa.

2. Trafiko Buruzagitzak ibilgailuaren matrikulazio espedienteari hasiera emateko ezinbestekoa izango da kuotaren ordainketa egiaztatuko duen ordainagiria aurkeztea.

V. KUOTAK ITZULTZEA

7. artikulua.

Ibilgailuaren behin betiko bajaren ondorioz edo behin-behineko likidazioan ordaindutako soberak direla-eta, kuota proportzionalak subjektu pasiboaren alde ateratzen direnean, Zergaren subjektu pasiboei itzuliko zaizkie, behin betiko baja eta ibilgailuaren matrikulazioari buruzko dokumentazioa aurkeztean.

VI. GESTIOA



8. artikulua.

Tarifak aplikatzeko, honako arau hauek hartuko dira kontuan (114/1999 FD):

1. Zerga honen ondorioetarako, bere Tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu motak abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzeoak, II. eranskinean jasotakoak izango dira.

2. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa ordainduko dute, beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatzeko baimenduta daudenean, kamioi gisa ordainduko baitute.

3. Autokarabanekek turismo gisa ordainduko dute beren potentzia fiskalaren arabera.

4. Edonola ere, aipatutako Tarifetako D) letran aipatzen den “traktoreak” izenburu generikoak, bere baitan hartzen ditu «kamioi traktoreak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak», eta baita bide publikoetatik zirkulatzeko trakzio mekanikodun ibilgailuren beharrik ez duten makina autobultzatuak ere.

5. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuartrizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera ordainduko dute. Kuartriziklo arinek, berriz, ziklomotore gisa ordainduko dute.

6. Ibilgailu artikulatuen kasuan, aldi berean eta bereizita ordainduko dute, alde batetik tira egiteko potentzia duenak, eta bestetik arrastaka eramandako erremolkeek eta erdierremolkeek.

7. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzeoak, V. Eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko da

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere Eranskinarekin batera, Udalbatzak onetsi zuen behin betiko 2016ko urriaren 18an izandako Osoko Bilkuran, **2017ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean** eta indarrean jarraituko du aldatzea edo derogatzea erabaki arte.



3. ORDENANTZA

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

ERANSKINA

ZERGA OINARRIA: 4/2009 Foru Araua

Ibilgailuen potentzia eta ibilgailu mota	Kuota (eurotan)
a) Turismoak	
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	42,50
9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	85
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	144,35
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	204,35
16-19,99 zaldi fiskal bitartekoak	262,65
20 zaldi fiskal edo gehiagokoak	321,05
b) Autobusak.	
21 plaza baino gutxiagokoak	193,25
21-50 plaza bitartekoak	275,25
50 plaza baino gehiagokoak	344,10
c) Kamioiak.	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	98,10
1.000-2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	193,30
3.000-9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	275,30



9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutena	
d) Traktoreak.	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	41
16-25 zaldi fiskal bitartekoak	64,40
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	193,30
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramateko erremolkeak eta erdierremolkeak	
750 kg baino gehiago eta 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	41
1.000-2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	64,40
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	193,30
f) Bestelako ibilgailuak	
Ziklomotoreak	10,40
125 cc-ra arteko motozikletak	10,40
125 cc-tik gora eta 250 cc-ra arteko motozikletak	17,80
250 cc-tik gora eta 500 cc-ra arteko motozikletak	35,70
500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra arteko motozikletak	71,35
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	142,70